

**2020-307025 Alkatetza dekretua onartuz deialdia egitea jatorrizko euskarazko kultur ekoizpenetarako eskaerak aurkez ditzaten eta haiek emateko 2020ko urtean**

2017ko martxoaren 23ko 58 zenbakia duen "BAO" Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, Berrizko udalak 2017ko martxoaren 15eko Osoko Bilkuran onartutako **BERRIZKO UDALERRIAN GARATUKO DIREN JATORRIZKO EUSKARAZKO KULTUR EKOIZPENETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

Eta Tokiko Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetzak dekretu bidez erabaki du:

**Lehena.-** Deialdia egitea jatorrizko euskarazko kultur ekoizpenetarako eskaerak aurkez ditzaten eta haiek emateko 2020ko urtean.

**Bigarrena.-** Honi erantsita doazen deialdiaren oinarriak onartzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen berri Udal kontuhartzaitzari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean zen udal iragarki taulan argitaratzea.

**Decreto de Alcaldía 2020-307025 aprobando la convocatoria para el año 2020 de subvenciones para producciones culturales originales en euskera**

Aprobado por el Ayuntamiento pleno de fecha 15 de marzo del 2017 y publicado en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 58, de 23 de marzo del 2017, el acuerdo de la **BASES REGULADORAS DE SUBVENCIONES PARA PRODUCCIONES CULTURALES ORIGINALES EN EUSKERA QUE SE DESARROLLARÁN EN EL MUNICIPIO**

Y en virtud de las atribuciones que otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Alcalde mediante Decreto acuerda:

**Primero.-** Aprobar la convocatoria para el año 2020 de subvenciones para producciones culturales originales en euskera.

**Segundo.-** Aprobar las bases, anexas a esta convocatoria.

**Tercero.-** Dar cuenta a Intervención y publicar en Boletín Oficial de Bizkaia y tablón municipal.

Berrizen, 2020ko uztailaren 15ean

ALKATEAK

Rolando Isoird Refoyo

**BERRIZKO UDALERRIAN GARATUKO  
DIREN JATORRIZKO EUSKARAZKO KULTUR  
EKOIZPENETARAKO DIRU-LAGUNTZAK  
EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

**1. Xedea.**

Oinarri hauen xedea honakoa da: diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea Berrizko udalerrian egingo diren jatorrizko euskarazko kultur ekoizpenetarako.

**2. Diru-laguntzen baldintzak eta helburua.**

Diruz laguntzeko eskatzen diren programek, baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskatzaileak berriztarrak izatea.
2. Berriztarren artean euskararen erabileraren aldeko jarrerak eta motibazioak sustatzeko programak.
3. Kultur ekoizpenak euskaraz eta herrian bertan eragitea.

**3. Eskaerak baloratzeko irizpideak**

Hurrengo balorazio-irizpideak oinarri hartuta esleituko dira diru-laguntzak:

- Ekintzaren kalitatea eta euskararen zabalkuntzan, erabileran izan dezakeen eragina, gehienez 40 puntu.
- Eragin-eremua: 10 puntu.
- Genero ikuspegia: 20 puntu.
- Irabazi asmorik gabeko proiektua izatea: 10 puntu

**BASES REGULADORAS DE  
SUBVENCIONES PARA PRODUCCIONES  
CULTURALES ORIGINALES EN EUSKERA  
QUE SE DESARROLLARÁN EN EL MUNICIPIO**

**1. Objeto.**

Las presentes bases tienen por objeto el régimen jurídico de concesión de subvenciones para la producciones culturales originales en euskera que se desarrollarán en el municipio de Berriz.

**2. Condiciones y finalidad de la subvención**

Las subvenciones tendrán que cumplir estos requisitos:

1. Las/los solicitantes serán berriztarras.
2. Programas para el fomento del uso del euskera entre los berriztarras.
3. Producciones culturales íntegramente en euskera que repercutan en el municipio.

**3. Criterios de valoración de las solicitudes**

La asignación de subvenciones se realizará en base a los criterios de valoración que se establecen a continuación:

- Calidad del programa o actividad y su capacidad para incidir en la proyección y uso del euskera: . máximo 40 puntos.
- Ambito de actuación del proyecto o actividad: 10 puntos.
- Perspectiva de género: 20 puntos.
- Proyectos sin ánimo de lucro: 10 puntos.
- Promoción de la inclusión social y minusvalía: 10

-Gizarte inklusioa eta elbarritasuna: 10 puntu.

-Berritzailea izatea: 10 puntu.

puntos.

-Proyecto innovador: 10 puntos.

#### 4. Onuradunak.

Deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek:

a) 18 urte eginda izatea.

b) Euskararen erabilera/ kultur ekoizpena sustatzeko egitasmoak, programak bultzatzen dituzten elkarteak, taldeak eta norbanakoak, beti ere udalerrian eragina izatekotan.

c) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzea.

d) Ez dezatela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso izan sexua dela-eta inor baztertzeagatik edo, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritako diru-laguntzetan aurkezteko debekurik ez izatea epe horretan.

e) Diruz lagun daitekeen jarduera gauzatzea.

Era berean, diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira administrazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten erakundeak.

#### 5. Aurrekontu-kreditua.

Diru-laguntza deialdi honen kreditu osoa

#### 4. Beneficiarias/os.

1. Podrán ser beneficiarias de las subvenciones objeto de las presentes bases las personas físicas o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener 18 años cumplidos.

b) Asociaciones, grupos y personas individuales que quieran fomentar la presencia y uso del euskera o creaciones culturales íntegramente en euskera que repercuten en el municipio.

c) que cumplan los requisitos del artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

d) que no hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres durante el período que establezca la correspondiente sanción

e) que realicen la actividad subvencionable.

Quedan excluidas asimismo las asociaciones en las que participen una o varias administraciones públicas.

#### 5. Crédito presupuestario.

El crédito total asignado a la presente

udal aurrekontuan finkatuko da urtero.

Diru kopuru hori diru-laguntzak emateko bestekoa ez bada, eskari guztien artean proportzionalki hainbanatuko da.

#### **6. Eskabideak aurkezteko era eta epea.**

Diru-laguntzen eskabideak Berrizko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira (Iturritza 51, Berriz). Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38. artikuluan arautzen duen moduren batean ere aurkez daitezke eskabideak.

Eskabideak eta agiri osagarriak aurkeztu ahal izango dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

#### **7. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak.**

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta sinatuta egon beharko da, eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Pertsona fisikoak: banakoek nahitaez aurkeztu behar dute NAN edo legez horren ordezkoa den agiria.
2. Pertsona juridikoak: Erakundearen IFZren kopia.
3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela

convocatoria de subvenciones se fijará anualmente en el presupuesto municipal.

Si esa cantidad no es suficiente para la concesión de todas las subvenciones, se repartirá proporcionalmente entre todas las solicitudes.

#### **6. Forma y plazo de presentación de las solicitudes.**

Las solicitudes de subvención deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Berriz (Iturritza 51, Berriz) o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes y la documentación complementaria podrán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el plazo de dos meses.

#### **7. Documentos e información que deben acompañar a la solicitud.**

La solicitud de subvención cumplimentada en su totalidad y firmada irá acompañada de la siguiente documentación complementaria:

1. Personas físicas. Será obligatoria la presentación del D.N.I. o el documento que lo sustituya legalmente.
2. Personas jurídicas: Copia del C.I.F. de la entidad.
3. Certificados de hallarse al corriente en el

dioten ziurtagiriak.

4. Titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta.
5. Diru laguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txosten zehatza.
6. Proiektuaren, programaren edo jardueraren gastu eta diru sarreraren aurrekontu zehatza.

#### **8. Eskabidea zuzentzea.**

Eskabideak hutsuneak baditu edo oinarri arautzaile hauetan ageri diren baldintzak bete ez baditu, organo eskudunak interesatuari eskatuko dio akatsak zuzen ditzan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Horrez gain, jakinarazi egingo zaio, zuzenketarik egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko duela Administrazioak, horretarako ebazpena bidali ondoren; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikuluari eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluari jarraiki.

#### **9. Diru-laguntzen zenbatekoa.**

Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziarioa

cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

4. Cuenta de titularidad debidamente certificada por entidad bancaria.
5. Informe detallado del proyecto, programa o actividad a realizar.
6. Presupuesto de gastos e ingresos para el desarrollo del proyecto, programa o actividad.

#### **8. Subsanación de deficiencias.**

Cuando se observe que la solicitud presentada es incompleta o no reúne los requisitos establecidos en las presentes bases, el órgano competente requerirá al interesado para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de la solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el art. 71 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y artículo 23.5 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

#### **9. Cuantía de las subvenciones.**

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario. Si del examen de la justificación de ingresos y gastos

egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

#### **10. Diru-laguntzaren emakida izapidetu, proposatu eta ebazteko eskumena duten organoak.**

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzak emateko onespena eta ebazpena egiteko organo eskuduna alkatea edo hark eskuordetutako organoa izango da, Kultura, Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak proposatuta, aldeaz aurretik zerbitzuaren txosten teknikoarekin. Aurreko ekitaldietan diruz lagundutakoak gonbidatuko dira, aditu gisa.

#### **11. Ebazpena jakinarazteko epea.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 59. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

Erakunde onuradunak zeintzuk diren eta eman diren laguntzak zenbatekoak diren adieraziko da ebazpenean, eta beren-beregi aipatuko da gainerako eskabideak ez direla onartu.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena

resultase un exceso de financiación, la subvención se reducirá en la cuantía del exceso de ingresos resultante.

#### **10. Órganos competentes para la instrucción, propuesta y resolución de concesión de las subvenciones.**

La instrucción del procedimiento corresponde al servicio gestor.

El órgano competente para la aprobación y resolución de concesión de subvenciones será el alcalde u órgano en quien delegue, a propuesta de la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Educación, previo informe técnico del servicio. Se invitará a los adjudicatarios/as de ediciones anteriores para participar como expertos.

#### **11. Plazo de notificación de la resolución.**

La resolución de concesión se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La práctica de dicha notificación o publicación se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 59 de la citada Ley.

La resolución indicará las entidades beneficiarias y las cuantías de las ayudas concedidas, haciéndose constar expresamente la desestimación del resto de las solicitudes.

Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán interponer recurso potestativo de reposición, ante el

egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

## **12. Emandako diru-laguntza ordaintzeko modua**

Diru-laguntzak emateko ebazpena egin dela jakinarazten denean, diru-laguntza bi zatitan ordainduko da. Urteko ekitaldian zehaztutako %80 hasieran, diru laguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txosten zehatza aurkeztean eta beste %20, proiektua amaitzean. Proiektua abenduaren 31rako amaituko ez balitz, aurretiaz emandako diru-laguntza zatia itzuli beharko litzateke.

Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Era berean, diru-laguntza ez da ordainduko, pertsonak edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

## **13. Inguruabarrak aldatzea.**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketa nabarmenik egonez gero, ebazpena ere aldatu egin ahal izango da.

## **14. Diru-laguntzaren justifikazioa**

Elkarte edo pertsona onuradunek,

Presidente en el plazo de un mes, contado a partir de la citada resolución; o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao, en el plazo de dos meses. Todo ello sin perjuicio de que el interesado ejercite cualquier otro recurso que estime pertinente.

## **12. Forma de pago de la subvención concedida.**

El abono se realizará a partir de la notificación de la resolución de concesión de la subvención y se realizará en dos pagos. Al inicio, el 80% de la cantidad estipulada en el presupuesto anual, una vez presentado un informe detallado del proyecto, programa o actividad a realizar y el 20% restante, al finalizar el proyecto. Si el trabajo definitivo no se entrega antes del 31 de diciembre, se solicitará la devolución del primer pago.

El abono de la subvención no se llevará a cabo si la persona o entidad beneficiaria tuviese pendiente de justificar alguna subvención cuyo plazo de justificación hubiese finalizado. Tampoco se procederá al abono si la persona o entidad no hubiese reintegrado alguna subvención anterior cuando se le haya requerido.

## **13. Modificación de las circunstancias**

La modificación sustancial de las condiciones tenidas en cuenta para el otorgamiento de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución.

## **14. Justificación de subvenciones**

proiektuaren kostua justifikatu behar dute, indarrean dagoen urtearen abenduko 31ko 14:00ak baino lehenago.

La asociación o persona beneficiaria justificará el coste del proyecto, antes de las 14:00 horas del 31 de diciembre del año en curso.

Honelaxe osatuko da justifikazioa:

- Normalizatutako inprimakia egokia aurkeztu beharko dute ( B-3, B-4;B-5 eranskina).
- Gastuen egiaztagiriak. Gastuen jatorrizko agiriak edo konpultsatutako fotokopiak erantsiko dira eta, justifikatuko da aurkeztutako aurrekontua, zeharkako gastuei dagokien kopurua izan ezik (%20).

Onartuko dira gastuen egiaztagiri gisa honako agiri hauek:

A. Fakturak; baldin eta hauek datu guztiak ageri badira:

- Faktura-zenbakia.
- Fakturaren data.
- Identifikazio osoa (izen-abizenak, erakundearen izena eta helbidea), bai faktura egin duenarena bai hartzailearena.
- Faktura egin duenaren eta hartzen duenaren IFZ edota NANA.
- Jardueraren edo zerbitzuaren deskribapena.
- Kuota jasanarazia eta BEZ
- BEZrik ez badauka, arrazoia azaldu beharko da fakturan.

B. Faktura sinplifikatua, zenbatekoa 400€ (BEZ barne) baino gutxiago bada.

C. Diruz laguntzea eskatu den proiektua edo jarduera babesteko erantzukizun zibileko aseguru kontratatatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria. Onartuko dira aseguru-etxeak berak egindako ziurtagiriak edo aseguru-artekaritza batek egindakoak

D. Berrizko Udalak beste agiriren bat

La justificación se realizará de esta manera:

- Impreso normalizado, debidamente completado. (B-3; B-4;B-5)
- Justificación de gastos. Documentos originales y fotocopias compulsadas y se justificará el presupuesto presentado, excepto la cantidad del gasto transversal (20%).

Se aceptarán como justificantes de gasto:

A. Facturas: si tienen estos datos:

- Número factura.
- Fecha factura.
- Identificación completa (nombres-apellidos, nombre de la entidad, dirección), tanto del emisor de la factura como del receptor.
- EL CIF o DNI del emisor y receptor de la factura,
- Descripción de la actividad o servicio.
- Cuota imponible e IVA.
- Si está exento de IVA, se explicará el motivo en la factura.

B. Factura simplificada si el importe es inferior a 400€ (IVA incluido).

C. Certificado que acredite que ha sido contratado un seguro de responsabilidad civil que cubra el proyecto o la actividad para la que se ha solicitado subvención. Se



eskatu dezake, eta eskatutako justifikazio-agiri horiek guztiak aurkeztu behar dituzte erakunde onuradunek, behar bezala egiaztatzeko diru-laguntzaren zenbatekoa zertan erabili den.

aceptarán certificados realizados tanto por la propia entidad aseguradora como por una correduría de seguros.

Oinarri honetako aurreko ataletan aipatutako agiriak aztertzean ikusten bada gehiago izan direla lortutako diru-sarrerak egon diren gastuak baino, errekerimendua egingo zaio erakunde onuradunari, Berrizko Udalari itzul diezaion dagokion diru-kopurua. Halakorik jasotzen bada, diru-sarrera publikotzat hartuko da.

D. Y el beneficiario/beneficiaria tendrá que presentar cualquier otro documento que el ayuntamiento de Berriz, considere necesario para la justificación de la cantidad subvencionada del proyecto.

#### **15. Bestelako diru-laguntzekiko bateragarritasuna.**

Berrizko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina inola ere ezin izango da gehiegizko finantziatorik egon.

Si analizando estos documentos, anteriormente mencionados, se comprobara que los ingresos son más que los gastos, se le hará un requerimiento al interesado/a para que efectúe la devolución necesaria al ayuntamiento de Berriz. Si fuera así, el ingreso se considerará público.

#### **15. Compatibilidad con otras subvenciones.**

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Berriz serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras Administraciones o entes públicos o privados, sin que en ningún caso, pueda existir sobrefinanciación.

#### **16. Erakunde onuradunen betebeharrak.**

Oinarri hauen arabera diru-laguntza eskuratuko duten erakundeek diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak izango dituzte eta, batez ere, 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak. Besteak beste, honako betebeharrak izango dituzte:

#### **16. Obligaciones de las entidades beneficiarias.**

Las Entidades que resulten beneficiarias de una subvención de acuerdo a estas Bases deben cumplir con las obligaciones que con carácter general establece la normativa aplicable en materia de subvenciones y, en especial, las señaladas en el artículo 14 de la Ley 38/2003. Entre otras, cumplirán con las siguientes obligaciones:

1.- Finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak onartzea, eta eskatuko zaizkion datuak ematea.

1.- Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero, así como facilitar los datos que se requieran.

2.- Beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman duten jakinaraztea.

3.- Diru-laguntza eta bere aplikazioa behar bezala justifikatzea.

4.- Eska litezkeen kontabilitate-agiriak izatea, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak behar bezala egin ahal izateko, horrelakorik egotekotan.

5.- Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.

6.- Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako kasuetan, bertan adierazitakoa betez.

7.- Diruz lagundutako egitasmo horren aurkezpena egingo da herrian, Udaleko Euskara, Kultura, Hezkuntza batzordearekin batera koordinatuz eta antolatuz.

8.- Produktu horrek Berrizko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logoak eraman beharko ditu.

9.- Udalari ale batzuk emango zaizkio:

- Ipuin, liburuen kasuan: 20 ale.
- Ikus-entzunezkoak: 15 ale.
- Ikuskizun, kontzertua: estreinaldia.

#### **17. Oinarrien interpretazioa.**

Alkate-presidentea edo berak eskuordetutako organoa izango da oinarri hauek aplikatetik sor litezkeen arazoak interpretatu eta

2.- Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de otras Administraciones y Entidades públicas o privadas.

3.- Justificar adecuadamente la subvención y su aplicación.

4.- Disponer de la documentación contable exigible con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control, en su caso.

5.- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

6.- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos y con arreglo al procedimiento que establece la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

7.- Se presentará el proyecto subvencionado en el municipio, organizándolo junto al área de Euskera, Cultura y Educación del ayuntamiento.

8.- Ese proyecto subvencionado llevará los logos del ayuntamiento de Berriz y Diputación de Vizcaya.

9.- Se entregarán algunos ejemplares al ayuntamiento:

- Cuentos, libros: 20 ejemplares.
- Audiovisuales: 15 ejemplares.
- Concierto, espectáculo: estreno.

ebazteko organo eskuduna, eta horretarako beharrezko ebazpen osagarriak emango dituena.

### **18. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren puntuetan, honako hauek aplikatuko dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi duena eta aplikagarriak diren bestelako araudiak.

### **17. Interpretación de las bases.**

El Alcalde-Presidente u órgano en quien delegue será el órgano competente para interpretar y resolver cuantas cuestiones surjan de la aplicación de estas bases y para que dicte las resoluciones complementarias que resulten necesarias al efecto.

### **18. Normativa aplicable**

En lo no previsto en las presentes bases será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa que resulte aplicable.